


**MEMORIA
ANUAL
2025
URTEKO
MEMORIA**



EUSKADIKO FILMATEGIA
FILMOTECA VASCA



SARRERA INTRODUCCIÓN	04
URTEKO ZENBAKIAK EL AÑO EN CIFRAS	08
ITSASARGI PROIEKTUA PROYECTO FARO	10
ARTXIBOA ARCHIVO	12
KATALOGAZIOA ETA DOKUMENTAZIOA CATALOGACIÓN Y DOCUMENTACIÓN	14
DIGITALIZAZIOA DIGITALIZACIÓN	16
SARBIDEA ACCESO	20
ZAHARBERRITZEAK RESTAURACIONES	22
PROIEKTU BEREZIAK PROYECTOS ESPECIALES	24
PROGRAMAZIOA PROGRAMACIÓN	26
Zinema eta Zientzia VIII / Cine Y Ciencia VIII	30
Euskal Emakume Zinemagileak V / Cineastas vascas V	32
Jazzinema IX	34
Klasikoak II	35
BESTE JARDUERA BATZUK OTRAS ACTIVIDADES	36
KOMUNIKAZIOA COMUNICACIÓN	45

Sarrera

Introducción

Euskadiko Filmategiak lan asko eta garrantzi handikoak egiten ditu urtero ondare zinematografikoa kontserbatzera eta balioestera bideraturik. Horiek guztiak daude jasota 2025eko memoria honetan. Alabaina, haietako batzuk nabarmendu behar izanez gero —oihartzun mediatikoagatik edo garrantzi historikoagatik—, hiru behintzat aipatu beharko genituzke:

- Euskadiko Filmategia hautatu dute Film Artxi-boen Nazioarteko Federazioak (FIAF) 2028an egingo duen Nazioarteko Kongresuaren egoitza izateko. FIAFen Batzar Nagusiak bozketa bidez hartu zuen erabakia Montrealen (Quebec). Joxean Fernández Filmategiko zuzendariak defendatu zuen hautagaitza txosten baten bidez. Era berean, bideo bat ere aurkeztu zuten: Ibone Bengoetxea Eusko Jaurlaritzako lehen lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak, José Luis Rebordinos Donostia Zinemaldiko zuzendariak eta Edurne Ormazabal Tabakalerako zuzendari nagusiak parte hartu zuten ikusizko dokumentu horretan. Erakunde horiek, Elías Querejeta Zine Eskolarekin batera, gure ingurune zinematografikoa osatzen dute. Izendapen horri esker, gure 50. urteurrena aldi berean ospatuko dugu euskal herritarrekin eta munduko filmoteka nagusietako ehunka profesionalekin. Zalan-tzarik gabe, urrats historikoa da erakundearentzat, bai eta erakusleiho paregabea ere euskal zinemarentzat.

Son muchas y muy importantes las tareas con las que cumple cada año la Filmoteca Vasca en el ámbito de la conservación y puesta en valor del patrimonio cinematográfico. Todas ellas aparecen detalladas en esta memoria de 2025. No obstante, si tuviéramos que destacar algunas por su eco mediático o importancia histórica, es obligado señalar al menos tres:

- La Filmoteca Vasca fue elegida como la sede del Congreso Internacional de la Federación Internacional de Archivos Fílmicos en 2028. Así lo decidió por votación la asamblea general de la FIAF en Montréal (Quebec). Joxean Fernández, director de la Filmoteca, defendió allí la candidatura en una ponencia que estuvo acompañada de un vídeo en el que participaron la vicelehendakari primera y consejera de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco, Ibone Bengoetxea; el director del Festival de San Sebastián, José Luis Rebordinos; y la directora general de Tabakalera, Edurne Ormazabal. Estas instituciones, junto a la Elías Querejeta Zine Eskola, conforman nuestro entorno cinematográfico. Esta designación nos permitirá celebrar al mismo tiempo nuestro 50º aniversario con la ciudadanía vasca y cientos de profesionales de las principales filmotecas del mundo. Es, sin duda, un paso histórico para la institución y un escaparate único para el cine vasco.



Iberiar Filmategien Topaketetako lan-saioa, Tabakaleran
Sesión de trabajo en el Encuentro de Filmotecas Ibéricas en Tabakalera

Lau erdimetraien zaharbertitzearen prentsaurrekoa
Rueda de prensa de presentación de la restauración de los cuatro medimétrajes



Joxean Fernández Euskadiko Filategiaren hautagaitza Quebecen defendatzen
Joxean Fernández defendiendo la candidatura de la Filmoteca Vasca en Quebec

- Euskadiko Filmategiak *Hamaseigarrenean aidanez* (Anjel Lertxundi, 1985), *Ehun metro* (Alfonso Ungría, 1985), *Zergatik panpox* (Xabier Elorriaga, 1985) eta *Oraingo izen gabe* (José Julián Bakedano, 1986) film ertainak zaharberritu zituen Eusko Jaurlaritzaren eta EITBren lankidetzarekin. Errehabilitazio-lanak Boloniako L'Immagine Ritrovata laborategietan egin zituzten. Ondoren, irailean proiektatu ziren Donostia Zinemaldiko Klasikoak sailean eta, jarraian, Filmategiaren programazioan.
- Euskadiko Filmategiak Iberiar Filmoteken IX. Topaketa antolatu zuen azaroan. Bi egunetan, sektoreko profesionalek film-artxi-boen egungo eta etorkizuneko erronkei buruz eztabaidatu zuten, eta, horretaz gainera, lan-metodoak, proiektuak eta esperientziak partekatu zituzten. Zinemateka garrantzitsuetako ordezkariak parte hartu zuten saio haietan (Portugal, Espainia, Katalunia...). Nolabait ere, 2028an FIAFen Kongresuan gertatuko denaren entsegu orokor bat izan zen, formatu txikian egina.


Ondorio gisa, irizten diogu 2025a benetan urte bikaina izan dela, kontuan harturik goian adierazitako mugarriak, bost euskal hiriburutako programazioa —gero eta zifra hobeeekin— eta gure lana nazioartekotzeari loturik egindako aurrerapen nabarmenak. Beti euskal zinemaren zerbitzura, gero eta handiagoak dira gure erronkak.

- La Filmoteca Vasca, con la colaboración del Gobierno Vasco y EITB, restauró los medio-metrajés *Hamaseigarrenean aidanez* (Anjel Lertxundi, 1985), *Ehun metro* (Alfonso Ungría, 1985), *Zergatik panpox* (Xabier Elorriaga, 1985) y *Oraingo izen gabe* (José Julián Bakedano, 1986). Los trabajos de rehabilitación se llevaron a cabo en los laboratorios L'Immagine Ritrovata de Bolonia y se proyectaron en septiembre en la sección Klasikoak del Festival de San Sebastián y posteriormente en la programación de la Filmoteca.
- La Filmoteca Vasca organizó en noviembre el IX Encuentro de Filmotecas Ibéricas. Durante dos jornadas, profesionales del sector discutieron sobre los retos del presente y del futuro de los archivos fílmicos, además de compartir métodos de trabajo, proyectos y experiencias. Estuvieron presentes representantes de cinematecas tan importantes como la de Portugal, España, Catalunya, etc. En cierto modo, se produjo un ensayo general en formato reducido de lo que sucederá en 2028 durante el Congreso de la FIAF.

A modo de conclusión, con los hitos arriba señalados, una programación en cinco capitales vascas cuyas cifras van al alza y una progresión notable en cuanto a la internacionalización de nuestro trabajo, creemos que 2025 ha sido un año realmente extraordinario. Siempre al servicio del cine vasco, nuestros retos son cada vez mayores.

Urteko zenbakiak

El año en cifras



12.102

IKUS-ENTZULEAK
ESPECTADORES/AS

12.069

IKUS-ENTZULE IKASTETXEAK
BELODROMOAN SAIOETAN
ESPECTADORES/AS EN
IKASTETXEAK BELODROMOAN

53

FILM PROIEKTATUTA
TÍTULOS PROYECTADOS

165

EMANALDI OROTARA
(+6 IKASTETXEAK BELODROMOAN)
NÚMERO DE PROYECCIONES
(+6 IKASTETXEAK BELODROMOAN)

16

FILM EUSKARAZKO AZPITITULUEKIN EDO EUSKARAZ
PELÍCULAS SUBTITULADAS AL EUSKERA O EN EUSKERA

1.307

ERREGISTRO BIBLIOGRAFIKO BERRI KATALOGATUTA
NUEVOS REGISTROS BIBLIOGRÁFICOS CATALOGADOS

103

BIDEO GEHIAGO SARTU DIRA VIDEOMAN ETA
86 ORDU BAINO GEHIAGO DOKUMENTATU DIRA
VÍDEOS NUEVOS INGESTADOS EN VIDEOMA
Y MÁS DE 86 HORAS DOCUMENTADAS

158

ORDU IKUSI DITUZTE 104 PERTSONEK
HORAS VISIONADAS POR 104 PERSONAS

341

BOBINA, 36 GORDAILUGILEK EMANAK
BOBINAS DEPOSITADAS POR 36 DEPOSITANTES

71

EGUNEZ LAGA DA ZINEMA-ARETOA
DÍAS DE CESIÓN DE LA SALA DE CINE

496

AIPAMEN PRENTSAN
MENCIONES EN PRENSA

Filmategian digitalizatu den pelikula baten fotograma (*Barria, 1970*)
Fotograma de una película digitalizada en la Filmoteca (*Barria, 1970*)



Filmategian digitalizatu den pelikula baten fotograma
(*Zubieta 60-70. hamarkan*) / Fotograma de una película digitalizada
en la Filmoteca (*Zubieta años 60-70*)



SARTUTAKO IKUS-ENTZUNEZKO MATERIALA

50 DCP

55 artxibo digital

Super-8 mm-ko 195 bobina, 13 gordailugilek emanak

8 mm-ko 103 bobina, 9 gordailugilek emanak

16 mm-ko 42 bobina, 13 gordailugilek emanak

9,5 mm-ko 1 bobina, 1 gordailugilek emanak

35 mm-ko 151 bobina, 8 kopiarenak

16 mm-ko 403 negatiboren bobinak, gordailugile batek emanak

2 Betacam SP zinta

1 Betacam Digital zinta

1 U-matic zinta

33 mini-dv zinta

6 DV-Cam zinta

3 Video-8 zinta

506 DVD

INGRESO DE MATERIAL AUDIOVISUAL

50 DCPs

55 archivos digitales

195 bobinas de super-8mm de 13 depositantes

103 bobinas de 8mm de 9 depositantes

42 bobinas de 16mm de 13 depositantes

1 bobina de 9,5mm de 1 depositantes

151 bobinas de 35mm de 8 copias

403 bobinas de negativos de 16mm. de 1 depositante

2 cintas Betacam sp

1 cinta Betacam Digital

1 cinta U-matic

33 cintas mini-dv

6 cintas dv-cam

3 cinta Video-8

506 DVDs

Itsasargi proiektua Proyecto faro

Euskadiko Filmetegia izango da Film Artxiboen Nazioarteko Biltzarraren egoitza 2028an; hain zuzen, apirilaren amaieratik maiatzaren hasierara. Joxean Fernández Euskadiko Filmetegiko zuzendariak Quebecen defendatu zuen hautagaitza, Film Artxiboen Nazioarteko Federazioaren (FIAF) biltzar nagusiaren aurrean. Era berean, bideo bat ere aurkeztu zuten: Ibone Bengoetxea Eusko Jaurlaritzako lehen lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak, José Luis Rebordinos Donostia Zinemaldiko zuzendariak eta Edurne Ormazabal Tabakalerako zuzendari nagusiak parte hartu zuten ikusizko dokumentu horretan. Tabakalera osatzen duen ekosistemak eta gainerako erakundeekin sortu ditugun harremanak (EQZE, Etxepare Institutua, Donostia Zinemaldia edo Tabakalera bera, besteak beste) babes sendoa ematen diote Euskadiko Filmetegiari.

Nazioarteko FIAF biltzarra, zeinean 300 aditu baino gehiago biltzen baitira, mundu mailako ekitaldi garrantzitsuena da artxibo zinematografikoen esparruan. Urtetik urtera aldatu egiten da herrialde antolatzailea, eta mundu guztiko artxibozainek, akademikoek eta zinemagileek parte hartzen dute.

Lehenbiziko biltzarra New Yorken egin zen 1939an, eta ordudanik herrialdeetako hiri-buruetan antolatu da gehienetan, estatuko zinemateken zuzendaritzapean. Iberiar penintsulako filmotekei dagokienez, Portugalgo Zinematekak 1989an antolatu zuen ekitaldia, Espainiako Filmotekak 1999an eta Kataluniako Filmotekak 2013an. 2026an Rabaten (Maroko) egingo da kongresua, eta 2027an Berlinen (Alemania).

La Filmoteca Vasca será la sede del Congreso Internacional de Archivos Fílmicos que tendrá lugar a finales de abril y principios de mayo de 2028. El director de la institución vasca, Joxean Fernández, defendió la candidatura ante la asamblea general de la Federación Internacional de Archivos Fílmicos (FIAF) en Quebec. La ponencia estuvo acompañada de un vídeo en el que participaron la vicelehendakari primera y consejera de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco, Ibone Bengoetxea; el director del Festival de San Sebastián, José Luis Rebordinos; y la directora general de Tabakalera, Edurne Ormazabal. El ecosistema que conforma Tabakalera y la relación con el resto de instituciones (EQZE, el Instituto Etxepare, el Festival de San Sebastián o la propia Tabakalera, entre otras) hacen que la Filmoteca Vasca cuente con un sólido respaldo.

El congreso internacional de la FIAF, que suele reunir a más de 300 personas, es el evento mundial más importante para la comunidad de los archivos cinematográficos. Se celebra cada año en un país diferente, reuniendo a expertos/as, archivistas, académicos/as y cineastas de todo el mundo y combina sesiones de trabajo, proyecciones y eventos culturales.

El primer congreso se celebró en Nueva York en 1939 y, desde entonces, la mayor parte de ellos han tenido lugar en capitales de países y han sido organizados por cinematecas estatales. En el marco de las filmotecas ibéricas, la Cinemateca Portuguesa albergó este encuentro en 1989, la Filmoteca Española en 1999 y la Filmoteca de Catalunya en 2013. En 2026 el congreso se celebrará en Rabat (Marruecos), y en 2027 en Berlín (Alemania).

Ibone Bengoetxea FIAFeko kongresuan (Quebec) ikusi zen bideoan Ibone Bengoetxea en el vídeo que se vio en el congreso de la FIAF de Quebec



Ibone Bengoetxea

Première vice-présidente et conseillère à la Culture et à la Politique linguistique du Gouvernement basque
First Deputy Lehendakari and Minister of Culture and Language Policy of the Basque Government



Edurne Ormazabal

Directrice générale du Centre International de Culture Contemporaine Tabakalera
General Director of the International Centre for Contemporary Culture Tabakalera

Edurne Ormazabal FIAFeko kongresuan (Quebec) ikusi zen bideoan Edurne Ormazabal en el vídeo que se vio en el congreso de la FIAF de Quebec

José Luis Rebordinos FIAFeko kongresuan (Quebec) ikusi zen bideoan José Luis Rebordinos en el vídeo que se vio en el congreso de la FIAF de Quebec



José Luis Rebordinos

Directeur du Festival de Saint-Sébastien
Director of the San Sebastián Festival



Elías Querejeta Zine Eskola (EQZE)

Artxiboa

Archivo

Filmetegian sartzen diren elementuak kudeatzeko sistema berri bat ezartzea izan da 2025eko erronka handietako bat. EUN enpresarekin dugun lankidetzari eta haren Eunlogic softwareari esker, posible da artxiboan sartzen diren elementu guztien kontrol sistematizatua egitea. Hori horrela, automatizatu egin dira gordailugileen datuak biltzeko eta gordailuen ziurtagiriak sortzeko prozesuak. Gainera, hiztegi kontrolatu bat egin da, bildumaren eduki guztia euskaraz kudeatu ahal izateko.

Urtean zehar, Filmetegiak salgai dauzkan argitalpen guztien inbentario zehatza egin dugu. Eunlogic software bera erabiltzeari esker, hobeto antolatu ahal izan dira argitalpen horiek: stockean dauden aleen kontrol automatizatua egiten da eta mugimenduak kudeatzen dira, bulegoan bertan PDA bat instalatu ondotik.

Material fotokimikoa hobeto babesteko, zenbait aldaketa abiarazi dira artxiboa kudeatzeko moduan, betiere 2024an hartutako jarraibideak kontuan harturik: bertako zinemako filmen edukiontzien ordeztu polipropilenoztuak hasi dira jartzen —plastiko-mota hori egokia da material fotokimikorako—.

Gainera, material amateurraren kudeaketa berriari esker, hobeto kontrolatuko dira tituluak eta, etorkizunari begira, euskal ekoizpen amateurraren datu-base bat sortu ahalko da.

Artxiboari dagokionez, apalategietako etiketak berriro dira. Hala, errazago kudeatzen dira edukiak, QR kode baten bidez. Horri esker, artxiboa osatzen duten elementu guztiak irakur daitezke.

Uno de los grandes retos de 2025 ha sido la implementación de un nuevo sistema de gestión de los elementos que ingresan en la Filmoteca. Gracias a la colaboración con la empresa EUN y a su software Eunlogic, ha sido posible tener un control sistematizado de todos los elementos que ingresan en el archivo. Así, se ha podido automatizar la recogida de los datos de los depositantes y la creación de certificados de depósitos. Se ha elaborado además un vocabulario controlado, para poder gestionar todo el contenido de la colección en euskera.

A lo largo del año hemos realizado un inventario exhaustivo de todas las publicaciones de la Filmoteca que están a la venta. El uso del mismo software Eunlogic ha permitido una mejor organización de dichas publicaciones, con un control automatizado de los ejemplares en stock y una gestión de los movimientos, gracias a la instalación de una PDA en la propia oficina.

Con el objetivo de mejorar la preservación del material fotoquímico y siguiendo las directrices adoptadas en 2024, se han puesto en marcha también cambios en la gestión del archivo: se han comenzado a sustituir los contenedores de las películas de cine doméstico por envases de polipropileno, un tipo de plástico apto para el material fotoquímico.

Además, la nueva gestión del material amateur permitirá tener un mayor control de los títulos y crear en el futuro una base de datos de la producción amateur vasca.

En cuanto al archivo, se han renovado las etiquetas de las estanterías, lo que facilita la gestión de los contenidos a través de un código QR. Esto permite leer todos los elementos que integran el archivo.



Maspalomas pelikulako gordailua / Depósito de la película Maspalomas

Katalogazioa eta dokumentazioa

Catalogación y documentación



Digitalizatu den pelikula bateko irudia / Imagen de una película que se ha digitalizado

2025etik aurrera, euskaraz eta gaztelaniaz katalogatzen dira materialak, eta bi hizkuntzetan dokumentatzen dira, berebat, funts guztiak. Prozesuaren lehen fasean, erregistro bibliografikoei dagozkien metadatu guztiak euskaratu dira: 5.485 erregistro. 2026an ikus-entzuzko materialei buruzko erregistroak itzuliko dira (hau da, 8.200 erregistro baino gehiago). 2025az geroztik, Dokumentazio Sailak sistematikoki egiten ditu itzulpen lanak, bai eta dokumentazioa eta katalogazioa bi hizkuntzetan gordetzeko lanak ere.

A partir de 2025, tanto la catalogación de los materiales como la documentación de la totalidad de los fondos se hace en euskera y castellano. La primera fase del proceso ha consistido en la traducción al euskera de todos los metadatos correspondientes a los registros bibliográficos: 5.485 registros. A lo largo de 2026 se procederá a la traducción de los registros relativos a los materiales audiovisuales, que superan los 8.200 registros. Desde 2025, las tareas de traducción, así como los trabajos de documentación y catalogación bilingüe, se realizan de manera sistemática desde el departamento de Documentación.

2025EAN KATALOGATU ETA DOKUMENTATUTAKO ERREGISTROEN SAILKAPENA

1. Euskarri fotokimikoko filmak:
 - Komertzialak: 268
 - Familia-gordailuak: 15
2. Artxibo digitalak: 377
3. Bideograbazioak: 308
4. Liburuak: 92
5. Gidoiak: 57
6. Aldizkari berriak: 3
7. Material grafikoak: 90
8. Gailuak: 76
9. Kartelak (paperean): 21

CLASIFICACIÓN DE LOS REGISTROS CATALOGADOS Y DOCUMENTADOS EN 2025

1. Películas en soporte fotoquímico:
 - Comerciales: 268
 - Depósitos familiares: 15
2. Archivos digitales: 377
3. Videograbaciones: 308
4. Libros: 92
5. Guiones: 57
6. Nuevos títulos de revistas: 3
7. Materiales gráficos: 90
8. Aparatos: 76
9. Carteles (en papel): 21



Cine mundial aldizkaria / Revista Cine mundial

1.307 erregistro berri katalogatu dira.
17.755 izenburu daude eskura OPACen.

Videoma (ikusteko plataforma) - Dokumentatutako irudien orduak

- 103 bideo berri txertatu dira Videoman, hau da, 5.187 minutu iruditan.
- 3.448 bideo guztira; hau da, 2.852 ordu baino gehiago iruditan.

1.307 nuevos registros catalogados.
17.755 registros disponibles en el OPAC.

Videoma (plataforma de visionado) - Horas de imágenes documentadas

- 103 vídeos nuevos ingestados en Videoma, que equivalen a 5.187 minutos de imágenes.
- 3.448 vídeos en total, que que equivalen a más de 2.852 horas de imágenes.

Digitalizazioa

Digitalización

ZINEMA PROFESIONALA ETA AMATEURRA DIGITALIZATZEA

2025ean kalitate handiz jarraitu dugu digitalizatzen, 2023an erositako eskanerrari esker. Lehenengo proiektua Maite Berradre Errenteriako zinemagilearen funtsa digitalizatzea izan da: bereizmen handian digitalizatu dira 70 eta 80ko hamarkadetako Super8 filmak. Bildumak 32 film ditu, eta orain arte PAL formatuan zeuden; manifestazioak, mitinak, hauteskunde-kampainak, greba handiak eta martxa sindikal eta sozialak biltzen dituzte.

Gainera, sailak Filmategian utzitako obren ohiko kontrol teknikoa egin du: gehienak Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzak edo ekoizpenerako laguntza fiskalak jaso dituzten lanak dira. 2025ean, kopuruak nabarmen egin du gora eta 100 lan ere izan dira, film luzeak, laburrak eta sailak batuta.

DIGITALIZACIÓN CINE PROFESIONAL Y AMATEUR


En 2025 hemos continuado digitalizando en alta calidad, gracias al escáner adquirido en 2023. El primero de los proyectos ha sido la digitalización en HD del fondo de películas en Super8 de contenido político y social de los años 70-80 de la cineasta de Errenteria Maite Berradre. Se trata de una colección de 32 películas, que hasta ahora estaban en formato PAL y que recogen manifestaciones, mítines, campañas electorales o grandes huelgas y marchas sindicales y sociales.

Además, en el departamento se ha llevado a cabo el habitual control técnico de las obras depositadas en la Filmoteca, la gran mayoría trabajos que han recibido subvenciones del Gobierno Vasco o ayudas fiscales a la producción. Este año, la cifra ha aumentado significativamente y se ha llegado a las 100 obras, entre largometrajes, cortometrajes y series.



Maite Berradrek utzitako irudi baten fotograma / Fotograma de una de las imágenes depositadas por Maite Berradre

Digitalizatu den material grafikoa / Material gráfico que se ha digitalizado



BERTAKO ZINEMA DIGITALIZATZEA


Hamalau familia-gordailu ikuskatu eta digitalizatu dira; horien artean, 2024ko eta 2025eko materiala ageri da.

Familia-materiala, digitalizatua eta formatuarren arabera kontserbatua:

DIGITALIZACIÓN CINE DOMÉSTICO

Se han inspeccionado y digitalizado catorce depósitos familiares, entre los que hay material de 2024 y 2025.

Material familiar digitalizado y conservado según el formato:



MATERIAL GRAFIKOA ETA BIBLIOGRAFIKOA DIGITALIZATZEA

2024aren amaieran Epson Perfection V850Pro eskanerra erosi ondotik, 2025ean Filmategia bere material grafikoa digitalizatzen hasi da, kalitate gorenean. Material batzuk jada katalogatuta zeuden euskarri "analogikoan", eta beste batzuk digitalizatu ondoren katalogatu dira. Euskal filmekin zerikusia duten material ez-filmikoak dira, hala nola argazkiak, fotokromoak, diapositibak, formatu handia, fotogramak, presskitak, gidak eta abar.

DIGITALIZACIÓN MATERIAL GRÁFICO Y BIBLIOGRÁFICO

Con la adquisición del escáner Epson Perfection V850Pro a finales de 2024, este año se ha comenzado a digitalizar el fondo de material gráfico de la Filmoteca en máxima calidad. Algunos de los materiales ya estaban catalogados en su soporte "análogo", otros se han catalogado a partir de su digitalización. Se trata de materiales no filmicos relacionados con títulos de películas vascas donde encontramos desde fotografías, fotocromos, diapositivas, gran formato, fotogramas, presskits, guías, etc.

MATERIAL-MOTA TIPO DE MATERIAL	KOPURUA CANTIDAD	FORMATUA FORMATO	TAMAINA TAMAÑO
Fotokromoak Fotocromos	12	jpg	24,8MB
Liburuak / artikulak Libros / artículos	6	pdf	8,40MB
Argazkiak Fotografías	46	Tif / jpg	7GB
Diapositibak Diapositivas	27	tif	119MB
Material grafikoa Material gráfico	27	Tif/jpg	10,5GB
Dokumentazioa Documentación	395 orri	Tif / jpg / pdf	33,5GB
Pressbooka Pressbook	4	Tif/pdf	1,73GB

DIGITALIZAZIOAK

EQZErekin dugun lankidetzak, besteak beste, *Arraunketa!* (1968) film laburra digitalizatzea eta zaharberritzea ekarri du, zeina Rafa Treku (Ornis Films) natura-dokumentaletan espezializatutako zinemagileak egin baita. Filma 16 mm-tan filmatu zen, koloretan eta elkarrizketarik gabe, eta garai hartako estropaden erretratua egiten du.

Elías Querejeta Zine Eskolarekin lankidetzan, material fotokimikoa nitrato-euskarrian manipulatzekeo tailer bat jarri da abian, deskomposizio-fasean dagoen materiala digitalizatzeko zenbait modu esperimentatzeko. Kasu honetan, 1920ko hiru film labur izan dira.

DIGITALIZACIONES

Nuestra colaboración con la EQZE, entre otros trabajos, ha dado como fruto la digitalización y restauración del cortometraje *Arraunketa!* (1968), del cineasta especializado en documentales de naturaleza Rafa Treku (Ornis Films). La película, rodada en 16mm, en color y sin diálogos, retrata las regatas de la época.

En colaboración con la Escuela de Cine Elías Querejeta se ha puesto en marcha un taller de manipulación de material fotoquímico en soporte nitrato con el fin de experimentar diferentes formas de digitalización de material en fase de descomposición. En este caso han sido tres películas cortas de 1920.



EQZEko ikasle bat Filategian praktikak egiten
Alumno de la EQZE realizando prácticas en la Filmoteca



Nitrato batetik abiatuta digitalizatu den fotograma bat
Fotograma de una película digitalizada a partir de un nitrato

Sarbidea

Acceso

IRUDIAK KONTSULTATZEA

2025ean 88 ikustaldi-saio egin dira. Artxiboak 104 pertsonari eman die arreta, eta guztira 158 ordu eta 50 minutu ikusi dituzte iruditan.

Ikusitakoen % 59 ikus-entzunezko proiektuei lotua izan da, % 31 ikerketa akademikoei eta % 10, azkenik, beste erabilera batzuei. Ikerketa akademikorako erabiltzaileen artean, ikertzaileak, unibertsitate-ikasleak eta EQZEko ikasleak daude; ikus-entzunezko sektoreko profesionalek, aldiz, sorkuntza-baliabide gisa erabiltzen dute artxiboa. Kasuen % 40an, materiala erabili egin zuten kontsultatu ondotik.

Gehien eskaturiko gaien artean ageri dira memoria historiko eta sozialarekin, euskal kulturarekin, arte garaikidearekin eta hiri-irudiekin loturikoak. Era berean, nabarmentzekoa da nazioarteko erabiltzaileen presentzia: horrek artxiboaren kanpo-proiektzioa indartzen du, bai eta ikerketarako eta sorkuntzarako iturri espezializatu gisa duen balioa ere.

LIBURUTEGIAREN ERABILERA-DATUAK

Kontsultak % 12,5 areagotu dira 2024arekin alderatuta. Hazkunde horrek zerikusi zuzena du, neurri handi batean, Euskadiko Filmategiaren, EQZEren eta Donostiako Zinemaldiaren arteko lankidetzarekin, bai eta ikasle eta irakasleek beren ikerketa-proiektuetarako egiten dituzten eskaera gero eta ugariagoekin ere.

CONSULTA DE IMÁGENES

En 2025 se han realizado 88 sesiones de visionado. El archivo ha atendido a 104 personas que han visualizado un total de 158 horas y 50 minutos de imágenes.

El 59% de los visionados han estado vinculados a proyectos audiovisuales, el 31% a investigaciones académicas y el 10% a otros usos. Entre las personas usuarias con fines de investigación académica se encuentran investigadores e investigadoras, estudiantes universitarios/as y alumnado de la EQZE; mientras que quienes emplean el archivo como recurso de creación son profesionales del sector audiovisual. En el 40% de los casos, las consultas derivaron en la utilización de material.

Las temáticas más solicitadas estuvieron relacionadas con la memoria histórica y social, la cultura vasca, el arte contemporáneo y las imágenes urbanas. Asimismo, destaca la presencia de usuarios/as internacionales, lo que refuerza la proyección exterior del archivo y su valor como fuente especializada para la investigación y la creación.

ACCESO A LA BIBLIOTECA

Las consultas han aumentado un 12,5% respecto a 2024. Este crecimiento se debe, en gran medida, a la colaboración de la Filmoteca Vasca con la EQZE y el Festival de San Sebastián, así como a la creciente demanda de alumnos/as y profesores/as para sus proyectos de investigación.

Pertsona bat liburutegian kontsulta bat egiten / Un persona realizando una consulta en la biblioteca



ONLINEKO MULTIMEDIA-KATALOGOA

- Vimeo: 778 erabiltzaile bakar / 118 ikuskatze-ordu
- Ikustaldiak, guztira: 2.206
- Inpresioak/Interakzioak: 18,4 mila
- Orduak, guztira: 110

CATÁLOGO ONLINE Y MULTIMEDIA

- Vimeo: 778 usuarios/as únicos/as / 118 horas visionadas
- Vistas totales: 2.206
- Impresiones/interacciones: 18,4 mil
- Horas totales: 110

ESPAZIOAK LAGATZEA

CESIÓN DE ESPACIOS

	2024	2025
Guztira / Todos	125	71
Donostia Zinemaldia / Festival de San Sebastián	31	39
Tabakalera	12	14
Ikusmira Berriak	0	6
Donostia Kultura	1	1
Filmategia / Fillmoteca	14	6
Bisitak / Visitas	6	5

Zaharberritzeak

Restauraciones


Xabier Elorriagari eta José Julián Bakedanori Filategiko sari-banaketa
Entrega del premio de la Fílmoteca a Xabier Elorriaga y José Julián Bakedano

Lau erdimetraien zaharberritzearen aurkezpena
Presentación de la restauración de los cuatro medimétrajes



Arantxa Urretabizkaia eta Xabier Elorriaga *Zergatik panpox* zuzentzen Bolonian
Arantxa Urretabizkaia y Xabier Elorriaga corrigiendo *Zergatik panpox* en Bolonia

José Julián Bakedano *Oraingo izen gabe* pelikula zuzentzen Bolonian
José Julián Bakedano corrigiendo la película *Oraingo izen gabe* en Bolonia



Euskadiko Filmategiak *Hamaseigarrenean aidanez* (Anjel Lertxundi, 1985), *Ehun metro* (Alfonso Ungría, 1985), *Zergatik panpox* (Xabier Elorriaga, 1985) eta *Oraingo izen gabe* (José Julián Bakedano, 1986) film ertainak zaharberritu zituen Eusko Jaurlaritzaren eta EITBren lan-kidetzarekin. Errehabilitazio-lanak Boloniako L'Immagine Ritrovata laborategietan egin zituzten, eta irailean proiektatu ziren Donostia Zinemaldiko Klasikoak sailean. Lehenengo hiru filmek (1985ean eginak) osatu zuten euskarazko zinema sustatzeko Eusko Jaurlaritzak osorik finantzatutako lehen proiektua.

Lau zuzendariak Bolonian izan ziren, zaharberritze-lanak bertatik bertara gainbegiratzeko.

Lau bideokaseteak zaharberritzeko, Espainiako Filmategian eta Euskadiko Filmategian gordeta dauden 35 mm-ko jatorrizko negatiboak erabili ziren. Lehenik, material fotokimikoa garbitu zen, eta mekanikoki prestatu, digitalizatzeko. Bigarren fasean, denboraren joanak eragindako inperfekzioak desagerrarazi ziren, betiere jatorrizko fitxategiaren benetakotasunari eusteko asmoz. Gero, kolorea eta soinua zuzendu ziren. Filmategiko teknikariek gainbegiratuta eta Eusko Jaurlaritzaren babespean gauzatu zen prozesu osoa.

La Filmoteca Vasca, con la colaboración del Gobierno Vasco y EITB, restauró los medimetrajes *Hamaseigarrenean aidanez* (Anjel Lertxundi, 1985), *Ehun metro* (Alfonso Ungría, 1985), *Zergatik panpox* (Xabier Elorriaga, 1985) y *Oraingo izen gabe* (José Julián Bakedano, 1986). Los trabajos de rehabilitación se llevaron a cabo en los laboratorios L'Immagine Ritrovata de Bolonia y se proyectaron en septiembre en la sección Klasikoak del Festival de San Sebastián. Las tres primeras películas (realizadas en 1985) conformaron el primer proyecto íntegramente financiado por el Gobierno Vasco para promocionar el cine en euskera.

Los cuatro directores de las películas viajaron a Bolonia para supervisar el trabajo de restauración.

La restauración de las cuatro cintas partió de los negativos originales en 35 mm conservados en la Filmoteca Española y la Filmoteca Vasca. El material fotoquímico se limpió y se preparó mecánicamente para su digitalización. En una segunda fase se eliminaron las imperfecciones derivadas del paso del tiempo, siempre con el objetivo de conservar la autenticidad del archivo original. Después se corrigió el color y el sonido. Todo el proceso contó con la supervisión del personal técnico de la Filmoteca y el auspicio del Gobierno Vasco.

Proiektu bereziak

Proyectos especiales

GUIPÚZCOA (PÍO CARO BAROJA, 1979)

Gipuzkoa izena lehenbizikoz idatzita agertu zenetik mila urte bete zirela ospatzeko, Pío Caro Barojak zuzendutako film dokumentalaren (1979) euskarazko eta gaztelaniazko 35 mm-ko bi kopiarik onenak digitalizatu dira. Filmak 3 ordu eta 40 minutu irauten du orotara, eta zortzi kapitulu ditu: (*Gizona-El hombre, Harria-La piedra, Belardiak-Las praderas, Zuhaitza-El árbol, Nekazaritza-El medio rural, Burdina-El hierro, Itsasoa-El mar, Hiriak-Las villas*). Tabakalera eman zuten. Gainera, publikoaren eskura jarri da Kutxa Fundazioaren webgunean (hura da filmaren jabea).

IBERIAR FILMOTEEKEN TOPAKETA

Euskadiko Filmategiak Iberiar Filmoteken IX. Topaketa antolatu zuen azaroan. Bi egunetan, sektoreko profesionalek penintsulako film-artxiboen egungo eta etorkizuneko erronkei buruz eztabaidatu zuten, eta, horretaz gainera, lan-metodoak, proiektuak eta esperientziak partekatu zituzten.

Topaketa Joxean Fernández Euskadiko Filmategiko zuzendariaren, Eurne Ormazabal Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroko zuzendari nagusiaren eta Urkiri Salaberria Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren zuzendariaren ongietorriekin hasi zen. Ondoren, Carlos F. Heredero zinematikariak eman zuen inaugurazio-hitzaldia. Portugal, Espainia edo Kataluniako zinemateketako ordezkariak izan ziren saiootan.

GUIPÚZCOA (PÍO CARO BAROJA, 1979)

Con motivo de las celebraciones por los mil años de la primera mención escrita a Gipuzkoa, se han digitalizado las dos mejores copias de 35 mm en euskera y castellano de esta película documental dirigida por Pío Caro Baroja (1979). La cinta, de 3 horas y 40 minutos de duración, está dividida en ocho capítulos (*Gizona-El hombre, Harria-La piedra, Belardiak-Las praderas, Zuhaitza-El árbol, Nekazaritza-El medio rural, Burdina-El hierro, Itsasoa-El mar, Hiriak-Las villas*) y fue proyectada en Tabakalera. Además, se ha puesto a disposición del público en la página web de Kutxa Fundazioa (propietaria de la película).

ENCUENTRO DE FILMOTECAS IBÉRICAS

La Filmoteca Vasca organizó en noviembre el IX Encuentro de Filmotecas Ibéricas. Durante las dos jornadas, profesionales del sector discutieron sobre los retos del presente y del futuro de los archivos fílmicos de la Península, además de compartir métodos de trabajo, proyectos y experiencias.

El Encuentro comenzó con las bienvenidas de Joxean Fernández, director de la Filmoteca Vasca; Eurne Ormazabal, directora general del Centro Internacional de Cultura Contemporánea Tabakalera, y de Urkiri Salaberria, directora de Patrimonio Cultural, Propiedad Intelectual y Depósito Legal del Gobierno Vasco. Después, el crítico de cine Carlos F. Heredero pronunció la conferencia inaugural. Estuvieron presentes representantes de cinematecas tan importantes como la de Portugal, España o Catalunya.



Guipúzcoa pelikulako fotograma bat / Fotograma de la película *Guipúzcoa*

Programazioa

Programación

Ikusle kopuru saioko

Espectadores/as por sesión

	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025	TOTAL
Ikusleak, guztira Total espectadores/as	11.513	5.856	5.715	7.707	9.710	11.567	12.102	64.170
Saioak Sesiones	87	48	98	143	125	144	165	810
Ikusle-kopurua saioko Espectadores/as por sesión	132,33	122,00	58,32	53,90	53,90	80,33	73,35	82,02

Ikusle-kopurua zikloko

Espectadores/as por ciclo

ZIKLOA CICLO	FILMAK PELÍCULAS	SAIOAK SESIONES	DONOSTIA SAN SEBASTIÁN	BILBO BILBAO	GASTEIZ VITORIA	IRUÑEA PAMPLO- NA	DONIBANE LOHITZUNE SAN JUAN DE LUZ	GUZTIRA TOTAL
Zinema eta Zientzia VII Cine y Ciencia VII	13	58	2.716	2.500	592	623	118	6.549
Euskal emakume zinemagileak V Cineastas vascas V	12	36	399	400	160	---	---	959
Jazzinema IX Jazzinema IX	4	11	643	---	163	224	157	1.187
Klasikoak II Klasikoak II	14	58	1.676	747	218	269	230	3.140
Proiektzio bereziak Proyecciones especiales	2	2	267	---	---	---	---	267
GUZTIRA / TOTAL	45	165	5.701	3.647	1.133	1.116	505	12.102

Euskadiko Filmategiaren programazioa finkatuta dago jada Donostian eta Bilbon. Alabaina, oraindik nekez fidelizatzen du publiko-masa kritikoa beste hiru egoitzetan (Gasteiz, Iruñea eta Donibane Lohizune). Ikusle-kopuruak gora egiten jarraitzen du: 2025ean 12.000 ikusle baino gehiago izan ziren (12.102), Filmategiak inoiz izaniko kopururik handiena, termino absolutuetan.

Hala ere, saio bakoitzeko ikusleen batezbestekoak behera egin du: 2024an 80,33 izatetik 2025ean 73,35 izatera igaro da. Horren arrazoia da, batez ere, saio-kopurua 144tik (2024) 165era (2025) igo dela. Azken sei urteetan (2019-2025) % 89,7 hazi da saio-kopurua.

Egoitzei dagokionez, Donostian biltzen dira datu onenak. Aurten pixka bat gora egin du, aurreko urteko jaitsieraren ondoren (129,57 ikusle saio bakoitzeko 2025ean, eta 2024an, berriz, 124,67). Datu horien arabera, aretoaren batez besteko okupazioa edukieraren % 50etik gorakoa da.

Bilbon, Arte Ederren Museoak obretan jarraitzen du, eta, beraz, Bizkaia Aretoan (EHU) egin behar dira saioak. Hori dela eta, saio-kopuru nabarmen bat igandeetan egiten da, ohi bezala larunbatetan egin beharrean. Hori litzateke ikusleen batezbestekoa jaitsi izana azaltzeko faktoreetako bat (alabaina, kontuan hartu behar da ez dela guztizko kopurua, 500 ikusle inguru gehiago izan baitira: 3.144 izatetik 3.647 izatera igaro da).

La programación de la Filmoteca Vasca está ya consolidada en San Sebastián y Bilbao, aunque sigue costando fidelizar a una masa crítica de público en las otras tres sedes (Vitoria, Pamplona y San Juan de Luz). El número total de espectadores/as sigue creciendo superando en 2025 los 12.000 espectadores/as (12.102), la cifra de espectadores/as más alta de la historia de la Filmoteca, en términos absolutos.

No obstante, la media de espectadores/as por sesión ha descendido, pasando de 80,33 en 2024 a 73,35 en 2025. Esto se debe, principalmente, a un aumento del número de sesiones que ha pasado de 144 (2024) a 165 (2025). En los últimos seis años (2019-2025) el número de sesiones ha crecido en un 89,7%.

Por sedes, la de Donostia sigue siendo la que mejores datos arroja. Este año ha remontado ligeramente tras el descenso del año anterior (129,57 espectadores/as por sesión en 2025 frente a los 124,67 de 2024). Estos datos suponen que la ocupación media de la sala es superior al 50 % del aforo.

En Bilbao continúan las obras en el Museo de Bellas Artes, lo que obliga a desarrollar las sesiones en el Bizkaia Aretoa (UPV/EHU). Por esta causa, un número significativo de sesiones se lleva a cabo en domingo en lugar del habitual sábado. Este sería uno de los factores que explicarían el descenso en la media de espectadores/as (que no en el número total, que ha aumentado en algo más de 500 espectadores/as: de 3.144 a 3.647).

Gasteizen ere ikusleen beherakada txiki bat nabari da (2024an 1.331 izatetik 2025ean 1.116 izatera). Era berean, jaitsiera erregistratu da saio bakoitzeko ikusleen batezbestekoan (saio bakoitzeko 35,03 ikusle izatetik 27,63 izatera). Errealitate horren berri izanik, Artiumek proiektio eguna aldatzea proposatu zuen, osteguna jarduera dezenteko eguna baita Gasteizen. Hori horrela, emanaldiak asteazkenetan egin ziren 2025eko azken hiruhilekotik aurrera.

Iruñean eta Donibane Lohizunen ere pixka bat behera egin du ikusle-kopuruak. Nafarroako hiriburuan saio bakoitzean 60,57 ikusle izatetik 39,86 izatera igaro da 2025ean; eta Donibane Lohizunen, berriz, 2024ko 38,14 ikusle izatetik 2025ean 28,06 izatera igaro dira. Gasteizen bezala, Iruñean ere aldatu egin da emanaldien eguna aurreko urteko azken hiruhilekotik aurrera (asteartetik asteazkenera aldatu da). Espero dezagun neurri hori lagungarri izatea hemen ere ikusleak ugaritzeko.

Zikloetako bi egoitza guztietan eman ziren (Donibane Lohizunen partzialki): Zinema eta Zientzia VIII eta Klasikoak II. Jazzinema egoitza guztietan proiektatu zen, Bilbon izan ezik, eta Euskal Zinemagileei eskainitakoa, berriz, Gasteizen, Bilbon eta Donostian.

Programazioaren ildo nagusiek aurreko urteetako berberak izaten jarraitu zuten:

- Euskal emakume zinemagileak eta euskal ondare zinematografikoa oro har.
- Kultura zinematografiko orokorra (klasiko eta titulu garrantzitsu berrienak, ziklo tematikoei edo atzerabegirakoei loturik), bai eta komertzialki banatu gabeko zinema ere batzuetan.
- Pisu espezifiko handia dute euskarazko azpitoluekin egindako lanek eta euskarazko jatorrizko bertsiok.

En Vitoria también se observa un ligero descenso de espectadores/as (de 1.331 en 2024 a 1.116 en 2025) y también en la media de espectadores/as por sesión (de 35,03 e/s a 27,63 e/s). Conscientes de esta realidad, desde Artium se propuso el cambio de día de proyección, ya que los jueves son días de bastante actividad en Vitoria, y desde el último trimestre de 2025 las proyecciones pasaron a realizarse los miércoles.

En Pamplona y San Juan de Luz también se ha producido un moderado descenso del número de espectadores/as. En la capital navarra se ha pasado de los 60,57 e/s a 39,86 en 2025; y en San Juan de Luz, los 38,14 e/s de 2024 se han reducido hasta los 28,06 del ejercicio de 2025. Al igual que en Vitoria, en Pamplona ha habido también un cambio de día de proyección, que ha pasado del martes al miércoles a partir del último trimestre del año anterior. Esperemos que esta medida contribuya al aumento de espectadores/as también aquí.

Dos de los ciclos pudieron verse en todas las sedes (en San Juan de Luz de forma parcial): Cine y Ciencia VIII y Klasikoak II. Jazzinema se proyectó en todas las sedes salvo en Bilbao y el dedicado a las realizadoras vascas, en Vitoria, Bilbao y San Sebastián.

Las líneas maestras de la programación siguieron siendo las mismas que en años anteriores:

- Cineastas vascas y patrimonio cinematográfico vasco en general.
- Cultura cinematográfica general (clásicos y títulos relevantes más actuales asociados a ciclos temáticos o retrospectivas) y en ocasiones cine no distribuido comercialmente.
- Importante peso específico del subtítulo al euskera o de versiones originales en euskera.

José Luis Rebordinos eta Joxean Fernández Klasikoak zikloaren aurkezpenean
José Luis Rebordinos y Joxean Fernández en la presentación del ciclo Klasikoak



Zinema eta zientziako prentsurrekoa / Rueda de prensa de Cine y ciencia

Zinema eta Zientzia VIII

Urtarrila - martxo / Enero - marzo

Euskadiko Filmategiak, Donostia International Physics Centerrek (DIPC) eta Donostia Zinemaldiak elkarrekin antolatua, kultura zinetografikoa eta zientifikoa zabaltzea du helburu. Horretarako, aukeraketa eklektiko bat egin zen Donostia International Physics Centerrekin batera, askotariko diziplina zientifikoetatik abiatuta askotariko ikuspegiak emateko. Eta, zikloaren ezaugarri nagusietako bati leial eutsirik, punta-puntako zientzialariak izan ziren filmak aurkezten eta solasaldiak gidatzen.

